AURREKONTUA AZALTZEKO MEMORIA

1.- EGOERA EKONOMIKOA

2022ko ekitaldian Udalak izango dituen diru-sarreren eta gastuen aurreikuspenak jaso behar ditu eta erakundearen plangintza ekonomikoaren oinarrizko dokumentua da. Bestalde, finantza-jardueraren gardentasuna bermatzeko eta haren fiskalizazioa eta kontrola baimentzeko araudiak ezartzen dizkion helburuak bete behar ditu.

Dirusarreren eta gastuen egoerak orekatuta ageri dira eta naiz eta egonkortasun helburua betetzen ez duen, hala ere 6/2021 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea

2022/12/30eko zorpetzea 5.421.393,86€takoa izango da, 2021eko aurrekontuaren aurrelikidazioaren sarrera korrenteen %37,19; beraz, esan dezakegu Azkoitiko Udalak egoera sanotua duela. Aurreko urtearekiko igoera dago, 2022ko aurrekontuan 1.010.000€ko mailegua aurreikusten delako

2022rako Udal aurrekontuak, 2021eko aurrekontuen oinarrizko egitura mantentzen du.

Organoka sailkatuta aurkezten da, eta bakoitzak kudeatzen dituen programen kopuruak guztira hauek dira, 2021eko aurrekontuarekin alderatuz.

BATZORDEA / COMISION	2021	2022
OGASUNA ETA PERTSONALA, GUZTIRA /TOTAL, HACIENDA Y PERSONAL	**6.255.531,14**	**6.462.268,56**
HIRIGINTZA , GUZTIRA / TOTAL, URBANISMO	**541.100,00**	**1.154.960,69**
KIROLAK ETA FESTAK, GUZTIRA / TOTAL DEPORTES Y FIESTAS	**1.179.900,00**	**1.187.000,00**
KULTURA ETA GAZTEDIA, GUZTIRA/TOTAL, CULTURA Y JUVENTUD	**1.130.150,00**	**1.167.620,00**
HEZKUNTZA ETA EUSKARA, GUZTIRA / TOTAL, EDUCACION Y EUSKARA	**342.255,00**	**354.755,00**
GIZARTE ONGIZATEA, BERDINTASUNA, INMIGRAZIOA, GUZTIRA / TOTAL, BIENESTAR SOCIAL, IGUALDAD, INMIGRACION	**1.254.455,00**	**1.336.925,00**
ALKATETZA, GUZTIRA / TOTAL ALCALDIA	**123.000,00**	**133.000,00**
LAN ETA ZERBITZUAK, GUZTIRA / TOTAL, OBRAS Y SERVICIOS	**2.270.300,00**	**2.293.200,00**
UDALTZAINGOA, GUZTIRA / TOTAL, POLICIA MUNICIPAL	**45.500,00**	**95.500,00**
INGURUMENA, GUZTIRA / TOTAL, MEDIO AMBIENTE	**1.689.302,00**	**1.752.017,36**
SUSTAPEN EKONOMIKOA, GUZTIRA/TOTAL, PROMOCION ECONOMICA	**413.506,86**	**432.753,39**
GUZTIRA / TOTAL	**15.245.000,00**	**16.370.000,00**

	2021	2022	Incremento 2021-2022
1.Kapituloa/Capitulo 1	4.828.403,83	4.982.867,42	**%3,20**
2. Kapituloa/Capitulo 2	4.925.155,00	5.340.629,78	**%8,44**
3.Kapituloa/Capitulo 3	43.272,87	26.933,78	**-%37,76**
4.Kapituloa/Capítulo 4	3.759.213,86	3.798.545,75	**%1,05**
5, Kapituloa/Capítulo 5	20.000,00	20.000,00	**%0,00**
6.Kapituloa/capítulo 6	975.100,00	1.496.960,69	**%53,52**
7. Kapituloa/Capítulo 7			
8.Kapituloa/Capítulo 8	12.000,00	12.000,00	**%0,00**
9.Kapituloa/Capítulo 9	681.854,44	692.062,58	**%1,50**
GUZTIRA/TOTAL	**15.245.000,00**	**16.370.000,00**	**%7,38**

Erabilgarridaudenbaliabideenbilketaarintasunez eta maiztasunezegitean, gastuakgaraizordainditzakegulaesandaiteke; beraz, usteduguurteosoanez dela tentsiorikedodesfaserikgertatukDiruzaintzan, beti ere UFFFarenaurreikuspenakbeteko balira.

3.- ONDARE EGOERA

2022. urterakoez da aurreikusinolakoondareondasunenbesterentzerik.

4.- AURREKONTUA ERATZEKO KONTUAN HARTU DIREN IRIZPIDEAK ETA HORREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK

UDALAREN 2022KO AURREKONTUAK – IRIZPIDEAK ETA ARRAZOIAK

Azkoitiko Udal Gobernuhonen 2022ko aurrekontuak, 2019-2023legealdikohirugarrenak izan go dira eta 2020an Covid-19ren pandemiaren eragina ere nabarmenduko nuke. Legealdi Plan bat bideratzen ari ginen 2020haseran eta Martxoan Covid19ak hau zuzendu eta beste hainbat alor aztertzea ekarri digu, batik bat Foru Fonduaren jetsiera zati baten konpentsatze aldera. Horretarako Uztailean, Ez Ohiko Pleno bat egiñez, 2020ko Aurrekontuan egokitzapen batzuk egin beharrean aurkitu ginen.

2020ko Azaroan Udal Foru Arau baten ondorioz, Udalek bete behar dituzten Egongortasun, Iraunkortasun, Zorpetze eta Gastu Arauaren bete beharrak bertan behera gelditu dira 2020 eta 2021eko ekitaldietara begira. Honek baita, Udalei Zorpetzeko aukera ekarri digu eta ikusita aurrera begira ditugun hainbat proiektu, aipatzekoa, Igerileku berria eta Floreagako Irisgarritasuna, 2020an 1.800.000€ko mailegu bat eskatzea onartu da.

2021ean ere Foru arau baten ondorioz arau fiskalak ere eten dira eta ondorioz Udalak 1.240.000 €tako mailegu berri bat eskatu du. Hala ere esan beharra dago 2021ean foru funtsaren likidazioa, aurreikusitakoa baino 866.390,00€ handiagoa izango dela aurreikusten da.

Tasa eta Zergagehienak izoztu egin ditugu 2022rako.

Udal Gobernuak bere Aurrekontua Azaroak 23an aurkeztu zuen eta ondoren beste Alderdien ekarpenak izan ditu.

Gastu eta inbertsioei dagokionez aurtengo lehentasunak hauekdira:

Led argiteria
Baserri bideak
Kale eta espaloien txukuntze eta konpontzea
Azoka eraberritzea
Ekonomia eta enpleguaren suspertzea Iraurgi Berritzenen eskutik..
Berdintasuna.
Ingurumena.
Gizarte Ongizatea
Merkataritza eta ostalaritza.

OGASUNA ETA PERTSONALA:

2022rako langileen soldatak %2 igotzea aurreikusi da. Igoera Estatuko legeak ahalbidetzen duenean egikarituko da.

Bestalde esan, Prebentzio eta Berdintasunko teknikaria, programa bidez 2021an %70eko lanaldian hasi zena, 2022rako %100 igotzea aurreikusi da.

Kontuhartzailetzan Diruzain lanpostua sortuko da legez behartuak gaudelako .

HIRIGINTZA:

2021arekiko %113,45o igoera izan du, guztirea 1.154.960,69€ aurreikusi direlarik. Urtero moduan bideak asfaltatzeko eta zebra bideentzako partidak. Honez gain hainbat Proiketuetako 150.000 €aurreikusi dira, pasa den urtean baina 85.000€ gehiago.

Aipatzekoak azoka eraberritzeko partida, 220.000€takoa eta txakur parkea eta komun publikoa hirigunean egiteko partidak, biak 65.000 € gehitzen dutelarik.

Argiteri publikoaren aldaketa gauzatzeko 429.960,69 € aurreikusten dira, bai gastuetan baita dirusarreretan ere, Feder dirulaguntza jasoko dugulako.

LANAK ETA ZERBITZUAK

2021eko aurrekontuarekiko jarraipena aurreikusten da. Nabarmentzekoa Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren lizitazio berriaren kopuruak jarri direla eta honek dexente gehitu du bigarren kapitulua.

Honez gain argiteri publikoaren gastua ere asko gehitu da, 285.000€tatik 310.000€tara.

Berez, igoera %8,77 koa aurreikusi da baina Iberdrolaren informazioaren arabera fakturazioa %28a igoko da 2022rako. Gure kasuan igoera txikiagoa da kuadro elektrikoak eta tarifak beharrari egokitu direlako.

Baserri bideetako inbertsioak 2022rako 50.000 € gehiago aurreikusi dira, 100.000 € hain zuzen.

Alokairuko dirulaguntzen partida mantendu den arren, 2022rako eskatzeko adin mugarik ez ezartzea aurreikusten da, dituzten sarreren arabera lagunduko delarik.

SUSTAPEN EKONOMIKOA:

Ekonomia suspertzeko Udalakduen tresna garrantzitsuenetarikoa Iraurgi Berritzen da, , Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako udalen Garapen eta Berrikuntza Agentzia. Garapen agentziari egin beharreko ekarpena 2021ekoa baino zertxobait haundixeagoa da, %4,65a. Honen arrazoia da Loiola Berrikuntza fundazioari egiten zitzaion dirulaguntza zuzenean Iraurgi Berritzenek garatzen dituen programetara zuzenduko dela.

Merkataritza eta ostalaritza arloan partidak handitu ditugu, 2021ean bezala , ekintzekin jarraitu ahal izateko eta bonu kanpaina bat ere aurreikusi da.

KULTURA ETA GAZTERIA:

Kulturan eta gazterian iazko aurrekontuaren antzekoa dugula esango genuke.

Kultur ekintzetako 122.000 € aurreikusten dira, iaz baino 14.000 € gehiago eta Gazteriako 337.900,00 €, 27.500 € gehiago 2021ean baino.

KIROLA ETA FESTAK

% 0,60ko igoera aurreikusi da. Elkarguneri egin beharreko ekarpena 10.200,00€tan jaitsi da. Covid 19ak izan duen Elkarguneko bazkideen bajak dakarren sarreren jeitsiera konpentsatzeko, bai 2021ean, baita 2022an ere, nabarmen igo du Masquatrori ordaindu beharreko dirualguntza.

ONGIZATEA

Ongizatean % 6,57ko hazkundea izan du aurrekontuak.

Aurreikusi diren Zerbitzu berriak edota partida berriak hauek dira:

.

Hauskortasun programa/ programa fragilidad	20.000,00
Bazterkeria egoeran dauden pertsona eta familiei baliabideak/Recursos a personas y familias en exclusión social	3.000,00
Ortzadar Elkartea diru-laguntza/Subvención asociación Ortzadar	1.500,00
AECC elkartea diru-laguntza/Subvención AECC	1.500,00
Genero indarkeriaren aurrean jarduera protokoloa/Protocolo actuación ante la violencia de genero	5.000,00

Honez gain partida batzutan 2021ekoarekin alderatuz gero igoerak izan dira, hain zuzen, ondorengo partidetan:

PARTIDA	2021	2022
Adinekoentzako Eguneko Arreta Zerbitzua / servicio Atención diurna para personas mayores	15.000,00	25.000,00
Emakumeen eta gizonezkoen berdintasunerako egitasmo estrategikoak/actividades estratégicas para la igualdad de mujeres y hombres	5.000,00	23.000,00

ALKATETZA

2022rako Memoria Historiako lantzeko 20.000,00€tako partida jarri da.

EUSKARA

Euskararako partidak zertxobait igo egin dira,
Nabarmentzeko dirulaguntzetan Maxixatzenen izenean dirulerro berria aurreikusi dela, 11.000 €takoa.

INGURUMENA

2022rako %3,71ko igoera aurreikusi da. Nabarmentzekoa Mankomunitatera egin beharreko ekarpenak izan duen jaitsiera. 23.48464€takoa. Bestalde Ingurumen Arloko hainbat ekintzetarako partidadak igo dira, batik bat Ibaietako Saretxoak jartzeko eta Ibai eta erreken garbiketarako. Ibaiko

barandilletako sareak jartzeko 22.000 € aurreikusi dira. Bestalde Ingurumen Mahai bat sortzea ere aurreikusten da eta baita Energia Kooperatiba baten sorreraren azterketa egitea.

5.- AURREKONTUAREN EDUKIA

Jarraian, 2022ko aurrekontuak, 2021 urteko hasierako nahiz behin betiko aurrekontuari dagokionez, bai sarreretan bai gastuetan emandako aldaketarik garrantzitsuenei buruz jardungo dugu, kapituluka.

GASTUAK

1. KAPITULUA: Hasierakoa urrekontuari dagokionez %3,20igo da eta egungo aurrekontuari dagokionez, berriz, %9,56 igo da .

Langileen eranskinak soldata era horretan burutu dira, %2ko igoera aurreikusiz.

2. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuari dagokionez %8,44 igo da, eta %3,46gehitu da egungoari dagokionez.
Kapitulu honetan gastua 2021eko ildo berean aurreikusi da.

3. KAPITULUA: %37,76ko murrizketa hasierako aurrekontuarekin alderatuta eta murrizketa berbera 2021eko aurrekontuaren aurrelikidazioaren gainean.
2022ko ekitaldirako, interés tasak egungo minimoetan mantentzea aurreikusten da, baina 2021an eta 2022an mailegu berria onartu denez, zorraren igoera dago..

4. KAPITULUA: %1,05ko hazkuntza hasierako aurrekontuari dagokionez, eta %7,67ko jaitsiera egungoari dagokionez.

Kapitulu honi dagokionez, 2020-2022diru-laguntzen plan estrategikoan onartutako lerroak jaso dira aurrekontuan eta bertan lortu nah idiren helburuak eta ondorioak zehazten dira.

Orokorrean Kirol eta Kultur taldeen dirulaguntza gehien-gehienak bere horretan geratu edo gehitu egin dira.

Bereiztu egin dira Udalak Zubiaurre Elkargune Erakundeari egiten dizkion dirulaguntzak arloka bereiztuz, gazteria eta kirolarentzat hain zuzen. Kirol arloan, Elkarguneri egiten zaion dirulaguntza nabarmen igo da Covid-19ak sortuko ondorioengatik.

Mankomunitateari egiten zaion ekarpena jeitsi egin da.

5. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuarekin alderatuta ez dago aldaketarik eta egungorakoarekin ere ez.

6. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuari dagokionez % 53,52 igo da, eta % 68,50 murriztu da egungoari dagokionez.
Aurreikusten diren inbertsio garrantzitsuenak memoria honen 4 atalean zehaztu dira.

8. KAPITULUA:12.000 €koz uzkidura du

9. KAPITULUA: Zorpetze portzentajea ez da murrizten 2022rako mailegu berri bat aurreikusten delako

SARRERAK

1. KAPITULUA: % 1,56ko jaitsiera izan du.

2022ko Ordenantza fiskalen onarpenaren ondorioz aurreikusten diren sarrerak zehaztu dira zergetan, beti ere zuhurtzia printzipioa oinarria izanez.

Plusbalia deritzon zergaren araudi aldaketak islatu dira aurreikuspenetan, jaitsiera suposatuz.

2. KAPITULUA:%8,82igo da.

Hirigintza arloko arduradunak aurkeztu dituen sarrera proposamenen arabera aurreikusi da kapitulu hau.

3. KAPITULUA: %3,95 igo da.

2022ko Ordenantza fiskalen onarpenaren ondorioz aurreikusten diren sarrerak zehaztu dira zergetan, beti ere zuhurtzia printzipioa oinarria izanez

4. KAPITULUA: % 12,89 igo da.

Nabarmendu behar da ForuAldundiak aurreikusten duen foru funtsaren bilakaera: .7.817.960,00 izatetik 2021ean 8.885.392,00€ izatera pasa da 2022an.

.

5. KAPITULUA:%9,41ekoigoeradago.

Nabarmendu behar da 2021ean Inazio Iriarte 2an kokaturiko lokala erosi duela udalak eta bertan indarrean zegoen alokairua errespetatu beharra dagoela 2023arte. Honek, noski, alokairuaren dirusarrerak sortzen dio Udalari eta hauek aurreikusi dira.

6. KAPITULUA: Kopuru berbera aurreikusten da, 2021ean gauzatu ez zenez Ibarmia enpresarekin akordioa.

7. KAPITULUA:%119,46ko igoera dago.

Irisgarritasun dirulaguntzak zuhurtziz ez dira aurreikusi, Eusko jaurlaritzak suspenditu egin dituelako. Eudel ari da gai hau bideratzen eta dirudienez berriz ere martxan jarriko dituzte, baina zalantza dagoenez ez dira islatu.

Honez gain, argiteria publikoa aldatzeko Feder dirulaguntza osoa aurreikusi da.

8. KAPITULUA: Berdin mantentzen da kapituluhau

9. KAPITULUA:1.010.000,00€ko mailegua aurreikusten da . Ez dago asmorik hau gauzatzeko. Kopuru hau inbertsio gehiago aurreikusteko jarri da eta gerakina murriztuko du.

Azkoitia, 2021eko abenduaren 13a.
ALKATEA
Sin. Javier Zubizarreta Zubizarreta

INBERTSIOEN MEMORIA

Antolakuntza Batzordea. Informatika ekipoak erosteko partida 9.000€ mantendu da.

HirigintzaBatzordea. Nabarmentzekoak bideak asfaltzeko partida, 200.000,00€takoa.

Azoka eraberritzeko 220.000€ bideratuko dira. Komun Publiko bat herrian ezartzeko 50.000€ jarri dira eta Txakur parke batentzat 15.000€..

Hainbat Proiektu partidak 85.000€ko igoera izan du, 150.000€tara iritxiaz. Bertan Floreagako hirugarren fasearen proiketua, Ur Jolas eta Skate-Parkour-Kalistenia parkeen proiektuak aurreikusten dira, baita Egoitza gerturatzeko bertan jarri daitekeen igogailuaren proiektua egitea ere..

Goiko Losa eta Zazpi Frontoiak eraberritzeko partidak ere nabarmendu behar dira, 20.000€koa bakoitza.

Bestalde, LED argiteria aldatzeko 429.960,29€ ere bideratu dira, sarrerak beste hainbatekoak izanik FEDER dirulaguntzengatik.

Lan eta Zerbitzuak Batzordea: Baserri bideak konpontzeko 100.000€ bideratuko dira. Parkeetako altzariak berritzako 20.000€ jarri dira eta Hiri Altzarientzat 30.000€.

Udaltzaingoa: 2022rako bi inbertsio berri aurreikusi dira. 4*4 auto hibrido baten erosketa eta erdigurnea kontrolatzeko sarbide kontrol berria. Lehena 27.000€koa eta bestea 20.000€koa..

Honez gain hainbat inbertsioa partida mantendu dira. Liburutegiko altzariak, liburuak, hainbat eskoilera, Baztartxoko inbertsioak, eta beste batzuk.

Azkoitia, 2021ko abenduaren13a.

Alkatea

Izp.: Javier Zubizarreta Zubizarreta